

TRAS LA ECONOMIA DEL DESPILFARRO. UNA ECONOMIA DEMOCRATICA PARA EL AÑO 2000

Samuel Bowles, David M. Gordon, Thomas E. Weisskopf,
Alianza Universidad, Madril, 1992

Jatorrizko argitalpena Estatu Batuetan 1990.ean egina baldin bada ere, liburu honen aipamena egitea ez dagoela soberan iruditzen zait. Ez baita ohizkoa honelako liburuak aurkitzea. Eta hau liburu honen gaia azken urteetako Estatu Batuetako ekonomia eta, are gehiago, ekonomi politika direla kontutan hartu arren: arazo urrunegiak, pentsatuko du jende askok. Hori egiaren erdia baino ez da, gero eta internazionalizatuago eta elkarlotuago bilakatzen ari zaigun mundu kapitalista honetan Estatu Batuak, oraindik, baztertu ezin dugun erreferentzia bat dugulako, nahiz eta, noski, bere kasuaren berezitasunak garrantzizkoak izan.

Liburu honen egileak ekonomilariak dira, iparramerikar *eskual erradikala* delakoaren ordezkari nagusienetakoak. Talde honen ekonomi pentsamoldearen iturriak, batez ere, marxismoan eta keynesianismoan aurkitu beharko genituzke, hau da, ekonomiaren ikuspegi ezkertiar batekin egingo dugu topo, azken urteotan irakurri ahal izan den kapitalismoaren interpretazio dinamiko eta aberatsenetako bat zor diogularik. Honen isladarik eskuragarrienetakoak, espainiar merkatuan alegia, liburu honen egileetako batek, Bowles-ek, R,

Edwards-ekin batera idatzi zuen **Introducción a la economía: Competencia, autoritarismo y cambio en las economías capitalistas** (Madril, Alianza Universidad Textos, 1990), da, hau da, ingelesez 1985.ean argitaratutako **Understanding Capitalism** obraren gaztelerazko bertsioa, Ekonomi Zientzien Fakultateetako irakasleek oso kontutan hartu beharko luketena *Samuelson* eta antzeko eskuliburu ortodoxoen alternatiba bezala. Azken berrehun urteotan nagusi bihurtu den ekonomi sistemaren eremuak zeharkatzeko gida honen muina, izenburuak dioen bezala, kapitalismoaren azterketa hiru ardatzen inguruan antolatzearen egokitasuna da: konkurrentzia –merkatu librearen lege eta mugimenduen ohizko ikuspegi neoklasikoa–, autoritarismoa –edo ustiapen-erlazioen antolaketa, batez ere soberakinaren banatze-prozesuari dagozkienak– eta aldakuntza –hau da, kapitalismoaren dinamikotasuna, zeinaren azterketan ikuspuntu historikoak garrantzi erabakiorra baitu–. Mikroekonomia eta makroekonomia beste era batean ulertzeko era bat, hortaz.

Baina **Introducción...** hura ez da aipamen honen helburua. Gure liburua kapitalismoa eta gaurrengungo mundua

ikuspegi hau erabiliz azaltzeko ariketa bat izango litzateke. Ez da lehenengoa, oso antzekoa izenburuko estudio baten jarraitzailea delarik: egile berek urte batzuk lehenago argitaratu zuten **La economía del despilfarro** (Madril, Alianza Universidad, 1989), 1970.eko hamarkadako depresioaren arrazoi eta iturburuen azalpen desberdin bat bilatzen zuena: epe luzeko argudioak askotan erabiliz, kapitalaren eskasia eta Estatuaren pisuari errua botatzen zieten teorien aurka, beste batzuen artean II. Mundu-Gerra ondorengo enpresa handiaren estrukturek eta ekonomiaren beste alorrek suposatzen duten kostu eta xahutze-maila handietan oinarritutako analisiak proposatzen dituzte.

Tras la economía del despilfarro ildo beretik letorke, baina kasu honetan aurkezten zaiguna, funtsean, Estatu Batuetako eskubiak *Reaganomics* delako eta Bush gobernuaren ekonomi politiken bidez krisia gainditzeko egin dituen ahaleginen historia eta kritika litzateke. Liburuak hiru atal nagusi ditu. Lehenengoan egileak saiatzten dira azaltzen gure ekonomiak nola funtzionatzen duen eta iparramerikar kapitalismoak historian zehar ezagutu dituen fase edo uhinen eta batez ere beronen barruan ematen diren krisien egitura zein den, aurreko liburuaren gai nagusia zen azken krisialdiaren arrazoiak deskribapena laburbilduz.

Sarrera honen ondoren helburua krisia konpontzeko neurri neoliberalen azterketa bat egitea da, hots, batez ere Reagan gobernura heldu zenetik aplikatutako neurrien desegoki-

tasunaren azalpen bat, egileentzat, amerikar ekonomiaren desorekak ez konpontzeaz gain, okertu egin dituelako –batez ere errentaren banaketa gero eta polarizatuagoa izan zuelako emaitza bezala, ondoriorik latzenak denon bistan ditugularik: liburuak idatzi zenean oraindik gertatzeke zeuden Los Angeles-eko 1992.eko erreboltak alegia-. Egileen iritzian jatorria amerikar ekonomiaren despilfarroan lukeen depresioaren eta honek suposatu zuen mozkinen jaitsieraren kontra borrokatzeko aurrera eramanez diren politikek –interes-tasak altu mantentzeko moneta-politika gogorra, sindikatu-mugimenduaren aurkako erasoak, enpresen iharduerak mugatzen zituzten legedia eta erregelen ezabaketa, aberatsenen taldeak ontzen zuen zerga-politika baten ezarpena, politika militaristen berraktibazioa mundu mailan ekonomi nagusigoa lortzeko–koiunturalki kapitalista-taldeen sarrera- eta kontrol-mailak handitu badituzte ere, ezin izan dituzte epe luzera errentagarritasuna eta inbertsioa berreskuratu eta, ordea, langabezia, txiroenen babes mailak, ingurugiroaren deusezpena, etab. okertu egin dituzte. Bide honetan, baina ekonomiari estuki lotutako ikuspegi agian "soziologikoago" batetik ez da harritzekoa funtsean arazo berdinak jorratzen dituzten John K. Galbraith ekonomilariaren **La cultura de la satisfacción** (Bartzelona, Ariel, 1991) maisulana bezalako liburuak azaltzea. Atal honek iparramerikar ekonomiaren despilfarro-mailei buruzko erreflexio batekin bukatzen du, eskuindar politikak zuzendu ez duena alegia: aberastasun berbera

astean lan-denbora gutxiago erabiliz lortzea posible izango litzateke.

Hirugarren atalak eskuindar ekonomi politika honi, baina baita ohizko keynesiar neurriei ere, alternatiba aurrerakoi bat oposatu nahi die, egileek *ekonomia demokratiko* bat deitzen dutena alegia. Honen helburu nagusiak bizi-mailen hobekuntza bideragarri bat lortzea, demokrazia politikoa eta barne- eta kanpo-kooperazioa areagotzea eta justizia zabaltzea izango lirateke. Neurri konkretuen artean gastu militarren jaitsiera, lan-denboraren murrizketa eta berbanaketa, ekonomi erakundeen kontrol demokratikoa, Estatuaren ekintzaren indartzea –batez ere langabeziaren kontra–, errenta gorenen gaineko zerga-tipoen igoera, etab. azpimarra ditzakegu. Egileentzat guzti hau egitea posible litzateke amerikar ekonomiaren xahutze-mailak zein handiak diren ahazten ez badugu. Berauen hitzetan:

Los economistas y los grandes personajes de los medios de comunicación nos dicen que estamos atrapados en el círculo vicioso del estancamiento económico: casi todas las soluciones que podamos adoptar para resolver nuestros problemas actuales van a costar dinero, dinero para modernizar las fábricas, dinero para sacar nuestro sistema escolar de la mediocridad, dinero para reparar nuestra tambaleante red de transporte. Sostienen que el problema se halla en que ya estamos gastando por encima de nuestras posibilidades y concluyen diciendo que el déficit presupuestario de Estados Unidos –y el déficit del comercio exterior relacionado con él– sólo puede reducirse recortando el

gasto público para que sea acorde con los ingresos del Estado (147. or.)

Ez al zaizue ezaguna egiten? Baina jarrai dezagun:

Pero [esta máxima] es falsa: se basa en una evidente falacia, a saber, que actualmente estamos utilizando de la manera más sensata posible el trabajo, el capital y los demás recursos de que disponemos. En caso negativo [...] sería posible introducir algunos cambios, eliminar una parte del despilfaro y tener más tiempo libre, así como más bienes, más inversión y más consumo. (149. or.)

Ez dut liburuaren edukien deskribapenarekin jarraituko, luzeegia ere ez denez gero: jakinmina duenak irakur beza. Baina nire ustez dituen zenbait bertute azpimarratzea gustatuko litzaidake. Hauen artean bat ekonomi zientzia eta analisiaren ikuspegi aberatsa genuke: kopuru eta indize batzuen iruzkin hutsa askotan, liburu honek gizartearekin eta batez ere ekintza politikoarekin mantentzen dituen erlazio estuak behin baino gehiagotan azaleratzen ditu. Gaia, bestalde, gaurregun bizi dugun egoera ulertzeko tresna erabilgarria dugu, ez soilik, lehen aipatu dudan bezala, Estatu Batuetako ekonomiak mundu-mailan gordetzen duen pisua dela eta, baizik eta hemen, Europan, ezaugarri desberdintzaile batzuekin noski, azken hamarkada hauetan bai eskuineko gobernuek –Britainia Haundian, Alemanian– bai ezkerrekoek –Frantzian, Espainian– aplikatu dituzten ekonomi politika neoliberalen alde ezkutu eta baldintzatzaile garrantzitsu batzuk aurkezten dizkigulako, batez ere inflazioaren eta

estatuaren defizitaren kontrako borrokei buruzkoak, eta hauek lanekuaren estrukturen eta soberakinaren banaketan izan dituzten ondorioak. Irakurketaren erraztasuna ahantz beste ezinezko faktore bat da liburua gomendagarri egiteko: ekonomi gaitan oso trebatuta ez daudenak ere arazorik gabe saia daitezke. Eta, *last but not least*, ni bezalako historialari bat ekonomia "hutsezko" liburu baten iruzkina egitera eraman nauena hau da, egileek liburuaren gai nagusiak, Historiaren, Estatu Batuetako kapitalismoaren historiaren joan-etorriekin lotu dituztela: iraganaren testuingurua integratu gabe ez dago lanaren funtsa ulertzeko modurik. Eta hau ez da ekonomi liburuetan askotan aurki daitezkeen lan egiteko modu bat.

Akats posibleen artean, nire ustez, nazioarteko ekonomiari eta batez ere Estatu Batuen eta beste nazio batzuen artean eman izan diren eta daitezkeen menpekotasun-erlazioei buruzko aipamen urriak leudeke, nahiz eta botere militarrek betetzen duen papera behin baino gehiagotan aipatua eta kritikatu izan –alor honetan sakontzeko oso kontutan hartzekoa, esate baterako, James Petras-en artikulua bat, "Expansión exterior y deterioro interno: la dialéctica del poder mundial de los Estados Unidos", **Mientras tanto**, 49 zbk., 1992. eko

Martxoa-apirila, 105-133 orr–. Bestalde, obraren argumentazioa sostengatzen duten analisi batzuen ulergarritasuna zalantzan jar daiteke, batez ere erabilitako irizpideak argiegi aurkezten ez zaizkigulako: adibidez, eskuindar ekonomiaren emaitzak neurtzeko erabiltzen diren "botere kapitalistaren ageriko eta eskutuko indizeei" dagozkienak (144 or. eta hh.), zeinaren oinarriak egileen beste argitalpen batean bilatu behar baititugu. Hala ere ez dute, egia esan, lanaren baliagarritasuna kolokan jartzen.

Zer esan daiteke konklusio gisa? Bai ekonomiarientzat, bai historiarientzat, bai inguratzen gaituen munduaren martxaren ulermenean sakontzen saiatzen den ororentzat irakurketa ezin hobea izan daitekeela **Tras la enonomía del despilfarro** hau. Ekonomia egiteko beste era bat, erradikala delakoa alegia, ezagutzeko aukera ona. Eta, ezkertiarrentzat, programa ekonomiko alternatibo posible baten lerro nagusiak aztertzeko unea, analista ofizialen aldetik etengabe jaurtitzen diguten –eta kolore desberdinetako gobernuek beren ekonomi politika bereiztezinen defentsa oinarritzeko behin eta berriro erabiltzen duten–. "Besterik egitea ezinezkoa da" horri aurrean neurri diferente eta pragmatiko batzuk jartzen hasteko itxaropena.

Iban Zaldúa González